

IKUSMENA

ZEIN ATAL DA? Kokatu:

IRISA

BEKAINA

BEGI-NINIA

BETILEAK

BETAZALA

Ikusmenaren organoa begia da, eta begi-globo ere deitzen zaio, esfera-forma baitu. Bi begi ditugu, aurpegian, sudurraren alde banatara.
Begian, hainbat zati eta babes-sistema daude:



BEGIKO ZEIN ATAL DA? Idatzi:

Begiaren zati koloreduna da.

Begia babesten dute, begira hautsa ez sartzeko.

Bekokitik jaisten den ura edo izerdia begira ez sartzeko da


Irisaren erdian dagoen zuloa da argia begira sartzeko.

Tamainaz aldatzen da begi-ninitik argi gehiago edo gutxiago sartzeko.

Malkoak zabaltzen dituzte begia garbitzeko edo bustitzeko

Nola zaindu behar da?

Begiak oso organo sentikorrak dira, eta zaindu egin behar dira. Horretarako...



Erabili argi egokia irakurtzeko eta idazteko.

Begian hautsa edo betile bat sartzen bazaizu, ez igurtzi! Kliskatu.

Garbitu aurpegia eta begiak goizero, eta kendu makarrak.

Joan oftalmologoarengana urtean behin.

Zaindu distantzia liburuak irakurtzeko eta telebista eta ordenagailuaren aurrean.